

# GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

58. zenbakia

94ko azaroak 18



*Esklusiba:  
"Egan" taldea  
banatzen da.*

## Ordiziako gorabeherak

**Seat Toledo GLX 1.8i berria**

Aire Egokitua, Direktio lagundua,  
Airbag bikoitza, Teknologi alemaniarra.



**2.195.000 pzta.  
BAKARRIK**

**SEAT ALAI**

San Esteban, 6  
☎ 65 48 75 - 65 01 62  
TOLOSA

Iure Auzoa z/g  
☎ 16 15 69  
OLABERRIA

# Hauek dira gure moduloen neurri eta tarifak

Orri osoa, behin: 50.000 pzta. 5 aldiz: 45.000 pzta. bakoitza

Orri erdia eta azaleko faldoia, behin: 25.000 pzta. 5 aldiz: 22.500 pzta. bakoitza

## Modulo 1

Behin: 3.000 pzta.

10 aldiz: 2.500 bakoitza.

## 2 modulo

Behin: 6.000 pzta.

10 aldiz: 5.000 bakoitza.

## 3 modulo

Behin: 9.000 pzta.

10 aldiz: 7.500 bakoitza.

## 2 modulo

Behin: 6.000 pzta.

10 aldiz: 5.000 bakoitza.

## 4 modulo

Behin: 12.000 pzta.

10 aldiz: 10.000 bakoitza.

## 6 modulo

Behin: 18.000 pzta.

10 aldiz: 15.000 bakoitza.

Publizitate hau 4.000 txokotan sartzen da,  
14.000 irakurle ditu GOIERRITARRA hamabostekariak



**88 96 12**



**GOIERRITARRA**  
**HAMABOSTEKARIA**  
**Argitaratzailea:**  
"Goierritarrak" Kultur  
Elkartea.

**Dorre-etxea, 1.**  
**(Correos-gainean).**  
**Tfnoa: 889612.**  
**Faxa: 161463.**  
**124 posta kutxa,**  
**Ordizia.**

**Zuzendaria:**  
Loinaz Agirre.  
**Erredakzioa:**  
Jon Arano, Mikel Albisu.  
**Publizitatea:**  
Argider Mujika.

**Erredakzio Batzordea:**  
Dionisio Amundarain, Jon  
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-  
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,  
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-  
kane Altuna eta Estitxu Imaz.  
**Zenbaki honetako kronista**  
**eta kolaboratzaileak:**  
Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,  
Rufino Iraola, Aloña Galarraga,  
Joseba Telleria, Mari Joxe  
Madariaga, Izaskun Salazar,  
Ana Irastorza, Jon Imanol Itu-  
rrioz, Edurne Ayuso, Gabino  
Murua, Iñaki Leturia eta Aitor  
Arza.

**Azaleko argazkia:** Foto Siste-  
ma.

**Fotokonposaketa eta maketa-  
zioa:** GOIERRITARRA.

**Inprimaketa:** ANTZA, S.A.  
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-  
Oria)

**Tirada:** 4.000 ale. 3.700 harpi-  
dedun.

**ISSN:** 1132-0907

**Lege Gordailua:** SS-926/89  
**Franko kontzertatua:** 37/76  
**GOIERRITARRAK ez du**  
**bere gain hartzen derrigorrez,**  
**aldizkarian adierazitako esa-**  
**nen eta iritzien erantzunkin-**  
**zunik.**

## ▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



## Segurako Hegazti Txokora bixita

Segurako San Andres ize-  
neko baserri eta ermittaren  
ondoan aurki daiteke Euskal  
Herrian ohizkoak diren he-  
gazti mota ugari eta beste  
ugaztunen zoo-txiki bitxi eta  
zaindua. Zegamako bidean,  
ibaiari begiratzen dion baserri  
aldean, zehatzago esanda.  
Baserri eta ermittaren arteko  
plazatxo xumean du sarrera  
eta han aurkitzen dira zenbait  
baserriren maketak, hegazti  
ezberdinen eta baita kattago-  
rrien kaiola moduan jarriak.  
Ingurutxo zaindu horretan  
daude, esan bezala, hegaztiak,  
ugaztunak eta beste, larunbat  
arratsalde eta igande goizetan  
bisita daitezkeenak. Jende-  
tzak hurbiltzen dira, ikastol-  
umeen autobuskadak, jubila-  
tu-taldeak txangoan... Argi-  
bide gehiago 801410 telefo-  
noan emango dizute, irakurle.

Eta nolatan iritsi den Se-  
gura zoo baten jabe izatera?  
Dena, orain dela 5 urte, "Ke-  
ko" Mayoz asteasuar etxeko-

nagusia hegazti zaurituak jaso  
eta sendatu arte hauek zain-  
tzeari ekin zionean hasi zen.  
Espezie horietako batzuk, la-  
rri zaurituak izan zirenez, ezin  
zuten aide libreria bueltatu.  
Eta horrela hasi zen gorpuzten  
San Andresko Hegazti Txo-  
koa, dedikazioz eta debozioz.  
Diputazioak emandako bai-  
menarekin ireki zuen duela 6  
hilabete publiko zabalagoen-  
tzat, zerbait kobratuz (herri-  
tarrentzat libre da). Aterpe  
horrek miru batetik hasi eta  
arranoekin segi, basa-ahateak  
eta orkatz bat eta guzti gorde-  
tzen ditu. Dena kattagorri,  
zozo beltz, mozolo, hontzuri,  
galeper, eper, txintxila, hontz,  
mendi-uso, mika, zapelatz,  
faisan, katamuturluze eta  
axari, zer ez? Nagusiak esan  
digunez, "basahuntza edo  
oreina ere badaukagu orain,  
Santandertik ekarria eta he-  
men hazia. Ahuntz ipotx edo  
txikiak eta loritoen familiako  
kakatua bat ere baditugu".

## Besteek esana

**Goierritik datorren artista...**

"Azkenaldi honetan, mar-  
gotzen baino enkargatutako  
ilustrazioak egiten ihardun  
dut. (...) Orain impasse batean  
aurkitzen naiz. Egia da azken  
urteetan margotzea aparkatu-  
ta eduki dudala, baina itzul-  
tzeko asmoa dut eta momentu  
honetan nondik joko dudan  
pentsatzen ari naiz. Lehenen-  
go eta behin utzitako lanekin  
segituko dut, oraindik hor  
daukat aspaldian hasitako  
kuadroa amaitu gabe, enkargu  
batzuk egin behar ditut..."

**Joxemari Telleria segurak**  
**margolariak, "Aizu!"n,**  
**94ko azaroa (139. zka.).**

## Tere Irastortzaren li- buru berria

"Urteekin bakarrik ikasten  
den/ beste zerbait/ egunero  
bizitzea da/ literaturaren aur-  
ka ere/ antidotorik onena".  
Pentsatzen dut bizitzak, bere  
zentzu estuan, bultzatu duela  
ezer ez argitaratzera; besterik  
da aztertzea idatzi duen ala ez  
ote duen idatzi. Dena dela, bi-  
zitako edozein une ederragoa  
da, asmatutako edozein orri  
literario baino. Baina hau,  
noski, nire irudipena baino ez  
da. (Manual devotio gabecoa)  
Liburu ondo pentsatu eta kal-  
kulatua dela esango nuke ho-  
nako hau. Gogoetatsua da,  
pentsamendu eta iruzkinez  
betetakoa, urteetako hausnar-  
keten ondorio edo".

**Felipe Juaristik, "D.V."n,**  
**94-XI-12.**



*Eusko Jaurlaritza-  
ko Kultura Sailak,  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiak eta*

**GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria**



**GOIERRITARRA** dohain  
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



## Rafa: izar baten izena

Ausartu ere, lerro batzuk besterik ez badira ere... Eta hementxe nago, mago baten antzera magia egin nahian.

«Halako batean, goi horretatik askatu eta "alda soro" eginez Goierri aldeotan lurreratu zen. Ekinahal horretan, goitarrek "joan da" esanez, despeditu zuten. Eginak zituen egun batzuk behe aldeotan; hala ere, ama zendu zitzaionekoan izan zuen goi alde horretarako lehen tiradizoa; ume kontua omen. Koxkortu zen nonbait eta, begi bakarrekin suertatu zenean, lehen tiradizoa ager egin, eta goi alde horretan izar bat ikusi. Eta magia horretan, ziplo!, "mago nauk".

Dizdiran ibili zenean, haurren egunko izarra gertatu zen, eta gauetan ere gora begira iharduten zutelarik, ea... Bada, orduan ez bazuten ikusi, begira deztela ondo-ondo, ze hemendik "alda soro" eta "joan da". Eta inork besterik esaten ez duen bitartean, eta oskarbi denetan, goiko soro zabal horretan diz-diz ari zaigu Rafa izeneko izarra. Amaitzeko, Rafa, eutsi goiari!, ederki asko ikusten baihaugu hemen-dik. Hala eta guztiz ere, egunen batean... hementxe gaudek eta merezi badiaгу behintzat, Goierri hadi lurtarren izenean. Ea bada...

*Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)*

## Zinea eta "alpistea"

Igande iluntzean, zesuma egon eta zineman filme bat ikusteko aukerari heldu nion. Filmea pantailan eta "pelikula" zinetokian: hango plastiko-hotsa, azal-txikitze eta kiratsak! Artoa, "pajitak, gusanitoak", patata frijituak, txikle eta txupatxusak... Lotsagarria benetan. Gero eta jende gehiago ari-

tzen da mizki eta mazka. Eta hori egiten dutenak ez dira prezeski ume eta gazteak, ez, ez!, "ume handiak" baizik. Nazkagarria benetan zinetokiaren egoera (lurra eta eserlekuak zaborrez be-te-ta!), alfonbra beharrik gabe. Nazkagarria, besterik gabe filmea ikustera joaten garenok jasan behar izaten dugun kiratsa eta hotsa.

Eserlekuan zankalatraka edota ipurdia atzera eta burua aurrera dutela eserita, zer jaten ari diren jakin ere gabe, baina dena bukatu bitartean ase ezinda aritzen direnek ez dakite, ez al dute jakingo, bestela ez lukete egingo eta, zer ero itxura izaten duten... Zineman erretzea debekatua dago; zergatik ez da jatea ere debekatzen? Zianbreran oílaskoa hartu eta jatera zinemara joateko gogoa maiz izaten dut horrelakoak jasan eta gero: hotsak aterako nituzke, "alpiste-jaleek" bezala; agian zinetokia zikinduko nuke, "alpiste-jaleek" bezala eta... "alpistea"ren kiratsa ez bezala, usain ederra zabalduko litzateke! Inbidiak inbidi.

*Iratí (Lazkao)*

## "... gu gira saltzaile onak"

Nere buruari zin egina nion, ez nintzela EGI-koen probokaziotan eroriko. Kale egitera noa, eta arrazoia ez da talde honek Goierri banatu duen azken aldizkaria besterik. Ezin izan diot sentitutako amorruari eutsi.

Aldizkari hori ez ikusteko zortea izan duzuenontzat esan, Buesa, Mayor Oreja, Onaindia e.a.en argazkien azpian honako esaldi hau agertzen dela: "Aberria hauen eskuetan utzi behar al dugu?" Aurpegia eta lotsa falta behar da!

Lehenengo aipatu, EGI eta PNV-k beraien "aberritzat" soilik komunitate

autonomoa daukatela garbi agertzen dela, argazkietako pertsonai siniestro horiek, Hego Euskal Herriaren zati batetakoak soilik bait dira. Ez dago nafarrik.

Santoñako errendizio interesatu eta lotsagarritik hasiko naiz, azkarragotik ere has nitekeen arren. Gero ikusi, euskal abertzaletasuna piztu nahi zuten, EGIN eta ETAKo gazteei PNV-k frankismo garaian jarri zizkieten trabak. Transizio garaiko jokaera kolaboratzailea (Suarezekin paktua), gure Herriaren subiranotasun nazionala salduz, eta berau territorialki zatitu ondoren Estatuto raketiko bat ekarriz. Lemoizko zentral nuklearraren aldeko apostua. ETA eta Gobernu espainiarren arteko Argel-go elkarrizketak apurtu nahia (interes espainolista eta partidistengatik gure Herriaren sufri-mendua luzatuz). Ajuria Enea-ko paktu anti- abertzalea. Ikusi Gasteizen norekin dagoen Ardanza Gobernua, Odon norengatik den Donostiako Alkate.

Ikusi euskal militantea, erahil, torturatu edo espainiar estatuko kartzeletara bidaltzen dituen Ertzantza errepre-sore eta kolaboratzaile baten sorrera ... Hori da PNV-ek herriari ekarria. Nor da regionalismo bidez Espainiaren itzalean ederki bizi eta hala segi nahi duen "alderdia"? Zer da hori saldukeria ez bada?

Beraz, EGI-kook, *eusko* sobran duzuela demostratu dut. *Gaztedi* berdin; alderdikide "helduen" agindua egiten duzuelako, autonomiarik gabe. Eta azkenik, *indarra*, kloaketako diru zikina-ren indarra. Ez lotsatzea da marka!

*Aita (Idiazabal)*

**JAUREGI  
TOLDOAK s/n**

Tfonoak: 880243 - 880133  
BEASAIN



**LOINATZ  
Taberna  
Jatetxea**

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



## Intereseko Telefonoak

### BEASAIN

|                    |        |
|--------------------|--------|
| Ertzaintza:        | 880961 |
| Udaltzaingoa:      | 881355 |
| Taxiak:            | 880367 |
| Epaitegia:         | 881681 |
| Notaria:           | 888789 |
| Udaletxea:         | 885900 |
| Suhiltzaileak:     | 881355 |
| DYA:               | 464622 |
| Gurutze Gorria:    | 882835 |
| Zumarragako Hosp.: | 723913 |
| Anbulatorioa:      | 461111 |
| Anbulantziak:      | 880957 |
| Butano:            | 882576 |
| Posta Bulegoa:     | 880967 |
| Pesa:              | 880668 |
| Estellesa:         | 452949 |
| Renfe:             | 880853 |
| Alkoholiko Anon.:  | 284515 |
| Hies Inform.:      | 427666 |

## Errezeta



### LANGOSTINO BROTXETAK

#### Osagaiak:

(2 lagunentzat)

Gurina, irina, 12 langostino, esnegaina, koñak eta perrexila.

Zartagi batean gurina jarri, eta hau urtzen denean goilarakada bat irin bota. Guzti hau nahastu eta lan-

gostinoak azala kenduta, brotxetan sarturik zartagian jarri. Ondoren kopa laurden bat koñak bota eta honek su hartu ondoren esnegaina bota. Langostinoak eginak daudenean plater batera atera eta saltsa loditzean langostinoei gainetik bota. Azkenik norberaren gustora perrexilaz apaindu.

**Lontxo Ormazabal**  
**lek emana**  
**Korta Jatetxea**  
**Gabiria**

## Bota bertsoa



**Alaitz Alustiza**  
**Gaia: Telebista bai**  
**ala ez?**  
**Doinua: Guardia zibilak**  
**hau dio...**

Exeri eta begira  
begietatik dizdira  
Haur eta gazte guztiak bertan  
biziatzen dira  
soluzio bat sikira  
jendea eskatzen ari da.  
Hutsa tajuzko zerbait botatzen  
aritu izan balira. (bis)

ETB-k hainbat bertute  
nik esplikatuko nuke  
programazio hobeago bat  
beharko lukete.  
Nahiz eta ez duten uste  
jendea galduko dute  
bertso saioa ere azkenik  
kendu baldin badigute. (bis)


## ZUHAIZKI

### Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK  
ETA ABAR

-ESKAILERAK  
NEURRITARA



Beko kale, z/g.  
Tel. 88 71 26  
Faxa: 16 10 77  
**ITSASONDO**  
(Gipuzkoa)

## EZ EGON BEGIRA !

# Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia  
**MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA**  
Ormaiztegi · Gipuzkoa  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea  
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa  
Tlf.: 943 - 88 99 00  
Fax: 943 - 88 01 38

## ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **IBILBIDEAK:** Museoa eta Goierrin barrena.
- **LANTEGIA:** Jolasean ikasteko ariketak.
- **ZUMAKIT MALETAK:** Mailegua dohain.  
I "Jazkien Baula"  
I "Euskal komunikabide eta garraioak 1788/1865"  
I "XIX. mendea, bi munduen arteko zubia"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX. mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, foileto, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK...**

### BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.  
Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.  
**SARRERA DOHAINIK**



## Lana

□ Mekanografia lanak egi-  
ten dira ordenadorez Ordizian. 882843 telefonoa, Eli.

## Salerosketak

□ GOIERRITARRAren kamixetak salgai gure egotzan (Ordiziako Dorre-etxean, "Correos" eta Nekazari Etxearen gainean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzera-tuak ere oparitzen ditugu.

□ GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. Merke merke sartuko zara 3.700 txokotan (13.000 irakurletik gora). Dei 889612ra (zure inprenta-lanak ere egingo ditugu, behin eta ondo).

□ Goi-mendiko lo-zaku lu-maduna salgai, berri-berria. Salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 88 96 12, Mikel.

## Etxebizitzak

□ Pisua salgai Ordiziako Altamira auzoan: sukaldea, sala, 4 gela, e.a. Interesatuok dei 881827ra edota 881018ra.

## ANTZERKIA

### Ordizia:

**Azaroak 30**, Txotxongilo jaialdia Herri Antzokian. 11.00etan Frantziako Bululu Theatre taldea. 19.00etan, Alemaniako Theatera.

## MUSIKA

### Beasain:

**Azaroak 21**, Musika Eskolako ikasleen kontzertua Udaletxeko Batzarre-Aretoa, 19.00etan.

**Azaroak 22**, Koskola txarangarekin kalejira 19.00etan hasita, Santa Zezilia eguna ospatuz.

**Azaroak 23**, Cesarius Alvin piano-jolearen jazz kontzertua Udaletxeko Batzarre-Aretoa, 19.30etan.

**Azaroak 24**, Aintzinako Musikako kontzertua "Musica Reservata" taldearekin Udaletxeko Batzarre-Aretoa, 19.30etan.

**Azaroak 25**, Koro Saenzen organu kontzer-

tua Andra Mari Parrokian, 20.30etan.

### Ordizia:

**Azaroak 18**, Bach musikaldiaren barruan, I Solista Instrumentali de Leipzig, Barrena Kultur Etxean, 19.30etan.

**Azaroak 19**, Donostiako Orfeoia, Jose Antonio Sainz eta Jose Manuel Azkue, Elizan, 20.30etan.

**Azaroak 26**, Oroith abesbatzaren kontzertua Elizan, 20.00etan.

## ZINEA

### Beasain:

**Azaroak 19**, "Rio Bravo" Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

**Azaroak 20**, "Salba diztagun pandak" La Salle-San Jose ikastetxean, 16.30etan.

**Azaroak 26**, "Banpiro ehiztaria" Murumendi ikastetxean 16.30etan.

**Azaroak 27**, "Txip aparta" La Salle-San Jose ikastetxean, 16.30etan.



### Ordizia:

**Ostirala 18**, "El lobo", 19,15.

**Larunbata 19**, "El lobo", 7,30-10,15

**Igandea 20**, "Nuevo Karate Kid", 4,45; "El lobo", 7,30-10,15.

**Astelehena 21**, "El lobo", 7,30.

**Ostirala 25**, "Forrest Gump", 10,15.

**Larunbata 26**, "Forrest Gump", 7,30-10,15.

**Igandea 27**, "Mi chica", 4,45; "Forrest Gump", 7,30-10,15.

**Astelehena 28**, "Forrest Gump", 7,30.



Legazpi kalea, 4  
Tfona: 880406  
ORDIZIA



**MUJICA**  
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA

**MUNDUATE**  
Erlojutegia  
**TISSOT**  
Swiss Quality Time

**BANATZAILE OFIZIALA**  
100 urte baino gehiago  
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1  
Tfona: 88 12 72

ORDIZIA





## BERTSOAK

### Azpeitia:

*Azaroak 19*, Matxinbentan erretako "Largarate" baserriaren aldeko bertso saioa Kiroldagian, 22.00etan. Bertsolariak: J. Lizaso, J. Agirre, I. Lazkano, X. Lizaso, A. Egaña, X. Euzkitze, Peñagarikano eta J. Sarasua.

## ERAKUSKETAK

### Beasain:

*Azaroaren 18tik abenduaren 4ra*, Agustin Sagastiren erakusketa Kultur Etxeko Erakusketa-Aretoa.

*Azaroaren 19tik abenduaren 9ra* Lolita Sarra-tearen erakusketa Aterpe Tabernan.

ROSA M. GULLON



Pintura Erakusketa

### Ordizia:

*Azaroaren 25era bitartean*, Rosa M. Gullonen pintura erakusketa Barrena Kultur Etxean.

## MENDI IRTEERAK:

### Beasaingo mendizaleak:

*Azaroak 20*, mendi-irteera Adira (1.450 m.).

*Azaroak 27*, Azkuara (787 m.) mendi-irteera.

### Idiazabalgo mendizaleak:

*Azaroak 20*, Azpeitia-Izarraitz beteranoen ibilaldia.

### Ordiziako mendizaleak:

*Azaroak 20*, Aloña- Artzanburu- Udana.

*Azaroak 27*, Ganbo.

**Zaldibiko mendiko zinema zikloa:** Kultur Etxean, gaueko 8etan.

*Azaroaren 22an*, astearte, "Azken erronka".

*Azaroaren 24ean*, osteguna, "Izotz eta argi egunak".

### Diapositibak Idiazabalen:

*Azaroak 18*, Kultur Etxean, 8etan, hiru goieritar Andetan, Aimar Reparazen eskutik.

## GOARDIAKO BOTIKAK:

*Azaroak 18:* Arriola; *19-20:* Jauregi; *21:* Urbizu; *22:* Atorrasagasti; *23:* Azpilikueta; *24:* Jauregi; *25:* Laurnaga; *26-27:* Azpilikueta; *28:* Cuesta; *29:* Arriola; *30:* Urbizu.



## Lehen kaki eta alkatxofak azaldu dira

Bertako kakiak eta Valentzia aldeko horburu edo alkatxofak azaldu ziren azkeneko azokan. Kakiak 200ean saldu ziren eta alkatxofak, 250ean kiloak.

**Arkumeak eta untxiak,** Gabonak gerturatzen diren neurrian, ugarituz eta merketuz hasi dira. 101 arkume bildu ziren, 500ean salduak. Untxia berriz, 250 pztan.

Era berean, **ehize** gutxiago azaldu zen. Eperrak (4), 1.000 pztan., usoak (10) 900-950ean, faisanak (6) 1.500ean eta birigarroak (oso gutxi), 90 pztan. **Perrretxikuak** oraindik kilo batzuk inguratu zituzten handik eta hemendik. Sorriako onddoak, 40 bat kilo, 2.000-3.000 pztan. Gibelurdinak (60) 1.500ean, eta nikalo eta gamuzak 600-1.000 pzta. bitartean.

**Bertako fruituetan,** Zaldibiako kiwiak azaldu ziren, 200ean salduak. Gaztainak, oso gutxi, 250ean; errezila igo egin zen, 150-350 pztan.; miz-


perak 350-400ean; intxaurrak, ale handiak, 450-550ean; eta Konferentzia udarea 150ean. Pikuak bukatu dira aurtengoz.

**Kanpoko fruituak:** gaztainak igo egin ziren, 225-275 pztan. salduak eta kiwiak berriz, jeitsi 250era.

**Bertako barazkiei** dagokienean, berenjenak eta pepinoak desagertu egin ziren. Piper berdea (150-300), ozpinetako piperra (200-300), tomateak (200-300) eta lekak (350) oso gutxi azaldu ziren. Jatorrizko deitura duen Tolosako babarrun beltza xorroetan hasi ziren saltzen, 1.100ean.

**Arrainak:** Kantauriko antxoak 750ean; bakailua 1.150ean; bixigua 2.500 pztan.; hegaluzea 1.200ean; txitxarroa 720ean; legatza 2.100ean; mediana 1.650ean; sardina 520ean; eta zapoak 950 pztan. txikia eta 1.350ean handia.

Ana Irastorza



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran  
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72  
BEASAIN



#### IV. BEASAIN IDAZLAN SARIKETA

antolatu du Beasaingo Udaleko Euskara Batzordeak, Beasaingo ume, gaztetxo eta gazteentzat, euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko asmotan. 3 maila bereiziko dira.

\* A maila: 1977-78-79-80 urteetan jaiotakoak. 4 orrialde gutxienez eta 6 gehienez izango da lanen luzera. Lehen saria 40.000 pztakoa izango da.

\* B maila: 1981-82-83 urteetan jaiotakoak. Lanen luzera, 2 orrialde gutxienez eta 4 gehienez. Lehen saria 28.500 pztakoa.

\* D maila: 1984-85-86ean jaiotakoak. Orri bat gutxienez eta 2 gehienez, eta lehen saria 17.000 pztakoa izango da.

Idazlan guztiak abenduaren 9rako aurkeztu behar dira Udaletxeko Euskaraz Zerbitzuan.

#### III. PINTURA

**LEHIAKETA** abian jarri du Beasaingo Aterpe Tabernak. Gaia eta teknika librea izango da. Artelanaren neurriak handiena 1m x 1m izango da. Artista bakoitzak lan bat bakarrik aurkez dezake. Artelanak sinatu gabe egon beharko du, artistaren datuak itxitako kartaazalean aurkeztuko dira. Lanak abenduaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira Aterpe Tabernan (Ezkiaga Etorbidea, 3). Sariak: irabazleak Aterpe Tabernaren logotipoaren brontzezko eskultura jasoko du eta artea bultzatze lan gisa, 1995ean zehar, hautatutako artisten erakusketak antolatuko ditu Aterpe Tabernak.



#### JOXEMIEL BARANDIARAN "MURKONDO"K ANTOLATURIKO II. IPUIN LEHIAKETA

ren deialdia luzatu berri dute. Lanak originalak, argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Gaiak eta mailak honako hauek dira:

\* A maila: OHOk 3. eta 4. mailak. Gaiak: jentilak etorri dira edo trikuharrira irteera.

\* B maila: OHOk 5. eta 6. mailak. Gaiak: nire amona sorgina zen edo Martin Txiki ezagutu dut. Gutxienez orrialde bat.

\* D maila: OHOk 7. eta 8. mailak. Gaiak: ukendu bat egin dut edo Jentilbaratzatik ohiu bat entzun da. Gutxienez 2 orrialde.

\* E eta F maila: Ertainetako 1-2. eta 3-4. mailak. Gaiak: erreka ertzean Marirekin topo egin dut; edo haize hegoa, gau epela, ilargiaren argi... edo bart gauean ake-larrean. Gutxienez 3 orrialde.

Idazlanak jasotzeko epea abenduaren 2an amaituko da. Sarien banaketa abenduaren 23an izango da Joxemiel Barandiaran Eskolan, arratsaldeko 2.30etan.



#### FANDANGO (ORRIPEKO) ETA ARIN-ARIN TXISTU MUSIKA LEHIAKETA

antolatu du Segurako Udalak 10. aldiz. Konposizioan, ohizko txistu familiar tresnak erabili beharko dira, hau da: 2 txistu, Silbo-tea, Danbolina eta danborra "adlibitum". Konposatzaile bakoitzak, Orripekoak, Ariñ-Ariñak edo bietatik aurkez ditzake. Dantzarako egokitasuna, doinuaren aberastasuna eta edertasuna, armonizapena, doinuaren esaldiak 8 edo 16 konpasetakoak izatea hartuko dira kontuan. Ez da neurri herrikoirik onartuko. Lanak martxoaren 1erako bidali beharko dira Segurako Udaletxera. Irabazle aterako diren lanak ekainean Seguran izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira.

#### GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARRAREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herritako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAk, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.



## Bertsoak nahi ditut ETBn

"Drogak nahi ditut AEKn" zioen Hertzainak taldearen kantak. Nik, berriz, bertsoak nahi ditut ETBn edo beste edozein telebistatan. Badakit berez bertsoa bertatik bertara entzutekoa dena, baina ni bezalako etxezulo asko dago, jaialdietara joateko alferregi eta telebistako bertso-saioak eskertzen dituen.

Orain, ordea, badira aste batzuk pantailan bertsoak ageri ez dela. Irratiz ez dute bizitasun bera; zer esanik ez paper idatzian. Hortaz, lehenbailehen nahiko genuke, "Hitzetik hortzera" ez bada beste saioren bat, bertsoak eskainiko dituen.

Azken urteotan mokoka ere ibili dira, Telebista eta Bertsolari Elkar-tea, edo elkar-tea ez bazen saio horren arduraduna. Hala ere, hase-reak haserre, gauza batez jabetu behar lukete, biak ala biak ere: elkarri egiten diotela mesede: bertsoak telebistari, ikusleak eta kultur ikutu bat ematen baitizkio, eta telebistak bertsoari, aukera eskaintzen baitio asko jende gehiagorengana iristeko eta zale berriak lortzeko.

Bertsolaritzako "Asegarce" batek etorri behar ote du, batzuk kon-turatzeko?

 Xabier Mendiguren

## Haxisa legeztatzearen alde al zaude?



**Jose Angel Laskibar**  
32 urte, zegamarra  
langilea

Kontra nago, pertso-narentzat ez bait da ona. Haxisa bakarrik ez, al-kohola, tabakoa, denak dira txarrak eta lehendik dauden hauekin nahikoa da gehiago legeztatu ga-be.



**Elena Azurmendi**  
32 urte, zegamarra  
etxekoandrea

Ez nago alde. Haun-diak harrapatu ezker ez zen horrelako arazorik izango. Bestela ere erreztasun gehiegi dago. Drogan sartuta daudenek laguntza gehiago behar-ko lukete.




**Jose Mari Alustiza**  
32 urte, zegamarra  
pintorea

Neri berdintsu zait, baina kalterako izango zela iruditzen zait. Po-rrotik hasi eta handiogo-ra joateko arriskua dago, azkenean pintxatzen bu-katzeko. Erreztasunak ematea ez zait ondo iru-ditzen.

## A ze flaxak!

**BEASAIN**  
**PISO DE LUJO**  
• Hall, cocina, salón, 4 habs. exteriores, 2 baños, 2 terrazas cubiertas, calefacción individual. Op-ción garaje doble cerrado de 62 m<sup>2</sup>.  
Propio para matrimonio joven y sus padres.  
**TELEFONO:**



RENAULT



Ordezkaritza

GOIERRI GARAJEA, S. A.

☎ 88 10 73 - 88 20 05 Ordizia

Probetxa orain bateri, olio aldaketa, anti-izozketa eta argietan gure salneurrik hoberenak.

Lan hauek egiteagaitik parte har ezazu



baten zozketan.


Zozketa notarioaren aurrean egingo da 1995eko apirilaren 4an.  
Eskaintza 1994ko abenduaren 31rarte baliagarria.

## IDIAZABALen ETXEBIZITZA BIKAINAK saltzen ditugu

**92 m<sup>2</sup> erabilgarri + trasteleku eta garajea**

**PREZIO OSO INTERESGARRIAK**

**Gaur egungo benetazko ordain-mailara egokiturik bait gaude**



**Informazioa eta salmenta:**

**Isabel II Etorbidea, 7. Donostia Tfnoak: 450721 - 452955**





Lazkao herriko lan-taldea

Urraren 21ean Lazkao-Txikiren omenez egindako bertso-jaialdi handiaren ondoren antolatzaileok bildu eta saioaren balorazioa egin dugu. Ekintza konkretu horrezaz gain beste asmo batzuk ere baditugunez, labor bada ere, guztien berri eman nahi dizuegu. Eta, noski, lehenengo eta behin saio hori aurrera ateratzen zuen lanarekin parte zuzena hartu zenuenoi mila esker!

**Ospatutako jaialdiaren balorapena:** hainbeste bertsolarikin saioa antolatzea lan handia da eta bertsolarentzat beraientzat hotza gertatzen bada ere, ez sarre-ra eta ez agur, hain bertso gutxi botatzea, Lazkao-Txiki gogora ekarri ziguten hainbat saioaren artean, serioak eta umorezkoak, zortziko txiki eta handiak, doinu desberdinetakoak... era guztietako bertsoak tartekatatu ziren. Saio dotore eta atsegina beraz.

Bertsolariek lanean jarri zuten gogoia agerian geratu zen eta, esan beharra dago, doan aritu zirela. Mila esker guztioi! Aleria zineman 500 lagun eskas bildu ginen eta megafonia, afaria, sarrerak inprimatzea eta beste hainbat gastu kendu ondoren, 400.000 pezetako irabazi garbia izan da. Diru hau Lazkao-Txiki oroitaraziko digun irudia ordaintzeko erabiliko da.

## Lazkao Txikiren inguruan

**Beste hainbat ekintza:** esan beharra dago Lazkao-Txiki omentzeko modurik egokiena herrian eta bailaran bertsozaletasuna indartzea dela uste dugula. Uste hori aurrera ateratzeko jadanik egiten dira ekintza batzuk eta beste batzuk ere martxan jarri nahi dira:

- \* Antzarren Bertso-paper bilketa eta argitarapena: 4 urte badira Lazkaoko umeen bertso-paperak bildu eta argitaratzen dituela "Goiherriko Euskal Eskola" Kultur Elkartek.

- \* Bertso-saio gaztea: bertso-paperen bilketa eta argitarapenaren ondoren partaide guztiei liburuskak banatu eta Goierriko Bertsolari eskolako bertsolari gazteekin bapateko saioa antolatzen du GEEK.

- \* Tomas Ugartemendia leaburuar eskulturgilea Lazkao-Txikiren irudi bat lantzen ari da eta datorren urtean jarriko da Lazkaoko Zelaian. Irudiaren inaugurazio ekitaldia bertso-jaialdi handi batekin janzteko asmoa dago.

- \* Bertsolari Eskola indar-

tzeko Lazkaoko bi ikaste-txeekin elkarlana eginez umeak Ordiziaratzeko animatzen saiatzen ari gara, irakasleak eta aurreko urteetatik ikasle direnen artean informazioa banatuz. Berdin Eskolarteko Bertsolari Txapelketara ere, beraientzat motibagarria den neurrian, ahal den gazte gehien inguratzeko saiatuko gara.

- \* Herri mailako komunikabideak ere ahal den guztian aprobetxatuko ditugu, Lazkao-Txiki bera eta bertsolaritza orokorrean hartuta kontaktak eta ahal den neurrian zaletze eta girotze-lanak eginez.

- \* Ordizian antolatzen den Lazkao-Txiki Bertso-paper lehiaketa indartzeko eta komeni bada zabaltzeko geure ahalegina egingo dugu.

Orain arte esandakoak, zenbait martxan daudenak eta beste zenbait asmo huts badira ere, adibide soiltzat har daitezke, izan ere garrantzitsuena Goierri bertsolaritza landu eta indartzea denez, kultur mailan ari garen goierritarrak elkarrekin koordinatu eta elkarlana egiten hastea bait da helburua. Eskerrik asko beraz bertsozale, bertsolari eta modu batera edo bestera laguntza eman diguzuen guztioi eta aurrera ere lanean jarrai dezagula, elkarrekin, bertsolaritzaren onetan, Lazkao-Txiki hainbeste merezi zuen eta.

**"Lazkao-Txiki omentzeko modurik egokiena herrian eta bailaran bertsozaletasuna indartzea da"**



Tfona: 885500 ORDIZIA



Giro fater eta atsegina

**BASAKANA**

ITURRIOZ 11  
BEASAIN



**ANZIZAR, S. A.**

Autoelektrizitatea  
eta mekanika

Volkswagen  
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.  
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



# Medin Dideliya mutil bosniar Ordiziaratuarenak

**J**endeari bere izena ahaztu ere egiten zaio, "bosnioa" deitzen diote eta berari ez zaio ajola. Medinek 17 urte ditu eta abenduan beteko ditu bi ordiziarren artean; hala ere, adin handiagokoekin ibiltzen da eta edadetuagoa dirudi. Musulmandarra dela, ez du beste alderik gugandik. Ia menperatzen duen gaztelera, kezkatu agertu zaigu bere familiaren etorkizunaz.

## Irtenbide gutxi

Eraturiko bidaian Ordiziara-tu ziren 5 familia bosniar. 20 lagun guztira. 6 hilabeterako zena hasieran, 6 hilabetero berritu zaie baimena eta, gerra bezalaxe, luzatu egin da egonaldia. Jendea oso ondo portatu zaie, baina beren zailtasunak ere egon dira tartean. Orain, Udalak utzitako "Apellaniz"eko etxebizitzatik alde egin beharra daukate, azaroak 20ko epean hustu behar.

## "Hemen gutxienez badugu jateko, bizitzeko..."

Etorri zirenetako batzuk joan egin dira batera edo bestera; 11 lagun geratzen dira, beraz. Medinen familiak ia dena galdu du Bosniako gerrak: dirutzak, jabetzak... "Inportanteena denak bizirik, ondo gaudela da", dio mutilak. Jaioterria ezin dute bueltatu ordea,



"Inportanteena ondo edo bizirik gaudela da"

Alemaniano ahaideengana ere ez, "Herceg Bosna", beren pasaportetik gabe baitaude eta errefuxiatuz gainezka baitago Alemania. Mugak gainditzeko nekeza da, bosniar enbajadarik ez da Europar... dena traba.

## Bizi edo iraun

Gazte hau Goierri Eskolan aritu da txapa-pinturaz zertxobait ikasten. Orain, berriz, lan bila hasita dabil. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak lagundu die eta laguntzen die, baina hileroko 40.000 pezetarekin pisua, gastuak eta mantenua ez dago ordaintzerik. Lau lagun dira, aita-amak, arreba txikia eta bera. Bere aita oso gaisorik dago, konzentrazio kanpo baten egotearen ondorioz, medikuetan dabilta eta ezin du lan egin. Panorama txarra, bere hitzetan.

Medinek lagun dexente egin ditu Ordizian eta gustokoa du "martxan" ateratzea, adiskideekin egotea. "Gus-

tora nago beraiengatik, ententzen bainaute, bizitzea eta ikustea tokatu zaidana bai baitakite. Dena eukitzetik ezer ez eukitzera da gurea. Gertatzen da jende asko dagoela hori zer den ez dakiena...". Aurrena besoak zabalik hartu eta orain "besterik gabe" bidaltzea ez zaio samurra egiten. Halere, hemen jendeak maitekiro hartu zituela ohartua dago. "Guk beinepehin badugu jateko, bizitzeko; Jugoslavia ohiean jendea hiltzen ari da, gosez eta bestela...". Oso eskerturik agertzen da borondate oneko ordiziar askoekiko: "faborre haundia egin digute eta eskerrak ematen dizkiet gugatik egin duten guztiagatik".

## Bosniara begira

Laister, gerran 3 urte luze egingo dituen Bosniara begira jarrita daude eta hango giroa oso txarki ikusten du. Serbioak, arma guztiekin, indartsu gelditu dira eta bosnioak, aldiz, armen enbargo dute gainean. "Gerra hasieran lurralde asko galdu genituen. Gu zapaldu gaituzte gehien, baina hori iraultzen ari gara. Geroz eta esparru gehiago irabazten ari gara eta ea gerra irabazten dugun. Bosnia bosniarrona izan da beti". Bere herrialdera bueltatzeko irrikitan dago Medin. Anai bat dauka han, beren kausa eta herrialdearen alde borrokan. "Zerbaitek tiradizioa egiten dizu: zure hizkuntza, lurra eta jendea gertu nahi dituzu sentitu". Ea gauzak ondo ateratzen zaizkien.

 Jon Arano

## KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754  
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

## Carasa, Cilveti, Lacort y Cia., S.A.

Aseguruen Korreduria  
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak ☎ 88 69 53  
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA



## Ba al dakizu...?

### HAUTES-KUNDEEN

**OIHARTZUNA** ez da itzali oraindik. Al-tzaga, Arama, Ataun, Lazkao, Mutiloa, Ola-berri eta Zaldibian in-dar erlazioa aldatu egin da, EAtik EAJren alde. Bestalde, frankismo garaiko militante his-torikoa, EEkoa eta EuEko zinegotzia zen Fermin Imaz zaldibita-rrak talde horretakoa izateari utzi dio, bere ustez sorrerako balore eta ideak bete-tzen ez dituelako.

Ordiziak Gipuzkoako lurraldeko ebo-luzio soziologiko eta elektoralaren pauta berdintsuak dituela zekarren "D.V" k herri honi eskeinitako errepor-taia zabal batean. Despolitizazio pro-zesu nabarmena eman da, eta Kepa Kortaren ustez, giro "idilikoa" soma-tzen da, aurreko urteen aldean. Gauzak asko aldatu direla eta HBko zinego-tzien posturak ere askozaz pragmati-koagoak direla dio. Inor ez da harritu, eta HBkoak gutxiago, PPren gorakada-rekin, tradiziozkoa da. Faustino Etxe-barrieta ezagunak dioenez, berriz, "he-men beti egon da pisuzko sektore tra-dizionalista bat".

### LAZKAOKO KAXKO

**HISTORIKOA** kultur ondare mo-numental gisa izendatu berria du Eusko Jaurlaritzak. Izendapenak udalerriko kaxkoa babestu behar dela esan nahi du.



### ELKARTASUN ETA

**LANKIDETZARI** buruzko jardun-naldiak burutu zituzten orain dela gutxi Ordizian Hirugarren Mundua eta Ba-kea, Komite Internazionalistak, Manos Unidas, Mugen Gaietik eta Parrokia-ko Misio talde ez gubernamentalek (ONG) osatutako lanerako mahaiak. ONGeok zera salatu nahi dute: "*% 0,7a ez dela nahikoa inondik inora ere, as-koz ere gehiago eman beharko litza-tekeela iparra eta hegoaldearen arteko desberdintasunak buka daitezen*". Gauzak horrela, Goierriko udalei "*Gasteiz eta Ordiziako udalek egiten duten bezala, beren aurrekontuen % 0,7 gutxienez, garapena helburu duten laguntzetarako eta lankidetzarako eman dezatela*" eskatzen die, besteak beste.

### OLABERRIKO ZAHA-RREN EGOITZA

abenduan inau-guratzekotan dira, orain egiten ari diren lokalaren konponketa bukatu bezain pronto. Lehenagoko eskoletan koka-

tuko da eta gimnasioaz gain, hidromasaiarako bainerak ere izango di-tu.

### MIKEL ETXEZARRETA ZEGAMAR AR-TZAIK

irabazi berri du Euskal Herriko Ardi Gazta Txapelketa Bil-bon. Lehendabizi He-goaldeko 4 lurraldeetan lehiatzen dira; probin-tzia bakoitzetik 10 lehenengo postuak lor-

tu dituztenak gonbidatuak izaten dira finala jokatzeko; nahi duenak joateko nola ez, eskubide osoa beregan du. Oraingo honetan, 10 urte luzeetan Gi-puzkoak Txapela bereganatzea ezi-nezkoa izan badu ere, zegamar hau dela medio bereganatu du.



### TERE IRASTORTZA ZALDIBITARRAK

"Manual de-



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bai-nuarekin.  
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserri-ko oilaskoa, arkumea...  
-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

### MANDUBIKO BENTA

*Jatetxea*

Mandubiko gainean, Urolatik Goierriko bidean  
Tfona: 88 26 73



votio gabecoa" poema liburua argitaratu berri du Iruñeako "Pamiela" rekin. 7 urtetan ezer argitaratu ez badu ere, idazten eta itzultzen aritu da, "Uned" en irakasteaz gain. "Beharbada, bada garai bat ereitekoa eta beste bat jasotzekoa. Orain dela gutxi egokitu nintzen familia eukitzeko baja batean, eta pentsatu nuen garaia zela karpeta askotan zehar sakabanatuak neuzkan poemak biltzeko eta poema liburu modu bati tankera emateko", Tereren hitzetan. Poemak azken urtebete edo bi-koak dira eta zertxobait aldatu du idazteko modua. "Ez dut esaten nik diodana bereziki inportantea denik, baina nik idatzi baldin badut zerbait esan asmotan da", esan digu.

## ▣ BADEREN

1-EN

"ERRENTA" antzezlanaren taularatu zen estreineko Ordizian joandako ostiralean, erderazko bertsioan. "Jakes eta nagusia" eta "Argirik piztu gabe" aurreko obretan bezala hor izan genuen Xabier Agirre (Xabier Txiki) legorretar aktorea. Legorretako beste bat, Ainhoa Garmendia kantari gaztea, bertako Kultur Astearen izan zen. Badirudi Pello Ramirez ordiziar musikariarekin akordeoia ikasten hasi zena, kantuko promes bikain gisa errebelatzen ari dela.

## ▣ "GOENKALE" EUSKAL

KULEBROIA, aurrenekoa euskaraz, arrakastatsua suertatzen ari da eta egunero ikus liteke ETBlean, 21.00etan (hurrengo eguneko 15.00etan errepikapena). Dekorazio errealistak erabiltzen ditu telesaioak eta gidoigileek ere ez omen dakite nola bukatu behar den melodrama hau, baina badirudi engantxatzen duela jenderik. Horko zenbait protagonista goierritarrak eta famosozkoak ditugu: Joxe



Mari (Mikel Garmendia ordiziarra), Iker eta Martin (Axier Zinkunegi eta Joxe Ramon Soroiz legorretarrak).

## ▣ ARITZ ZEBERIO BEA-

SAINDARRAK irabazi du aurtengo Orixe bertsopaper lehiaketa, gazte-txoen mailan. "Lehengusinarene ezkontza" erabili du gai moduan. Rufino Iraolaren esanetan, bertso hauetan ez da umore, gatz eta piperrik falta.



## ▣ BEHOBIA-DONOSTIA

lasterketa herrikoiean goierritar askok bota dute euren izerdia aurtan ere. Gehienak amaitzearekin konforme baziren ere, benetako lehia gogorrean aritu zirenak badira. Hona hemen emaitzarik onenak: emakumezkoetan Amaia Insausti olaberriarra 2. gelditu zen, 1.14.35ko denbora eginez; eta gizonezkoetan, Santi Gonzalez beasaindarra 8., 1.04.30ko denborarekin.

## ▣ ATAUNGO FESTEN

BARRUAN 24 orduko Aretoko Futbola eta Hiru Auzoetako XV. Korrikaldia burutu ziren. Futbolearen 19 taldek hartu zuten parte eta Billabonako Eizmendi Tabernak irabazi zuen. Korrikaldian berriz, Beasaingo Santi Gonzalezek zapaldu zuen lehenengo helmugako marra. Inoiz ez bezelako partaidetza izan zen; 110 korrikalari. Lehen herritarrak biak batera, Joxe eta Juan Arrondo izan ziren.


## ▣ BEASAIN ERREGE

KOPAN AURRERA. Lehenengo Tudelano eta jarraian Castellon talde aberatsaren aurkako kanporaketak gaititu ondoren, aurrera jarraitzen du Beasainek Errege Kopan. Etxean 0-0 berdindu eta Castellonen bina egin zuten, markagailuan atzetik joan eta Iñaki Eskisabelek plantxaz sartutako gol ikusgarri bati esker.

## MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m. — 1994-7-25
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m. — 1994-10-26
- ▲ Vinson 4.897 m.
- ▲ Aconcagua 6.960 m.

Zorionak  
Marron



GENERALI  
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



# Juanbi Erauskin: "Ordiziak N-1era begira jarri behar du"

**D**atorren udaberrian Udal Hauteskundeak ditugu eta Ordiziako Alkateak, Juan Bizente Erauskin, berriro bere burua aurkeztuko du alkatetzarako. Aukeratua izaten bada, 2. legegintzaldia beteko du eginkizun horretan. Baina horiek gero kontuak direnez, gertuagokoei buruz hitz egin dugu berarekin.

Hasteko, historia piska bat. 83an alderdi batek proposatu zion bere zerrendan joatea. Eta 87an, berriz, 3 alderdik. "Ikasketak, soldaduska eta horrelako aitzakiak jarri nituen ez aurkezteko, baina 91an ez zegoen horrelakorik" eta EAJren zerrendaburu azalduz egin zuten alkate. Aurretik, enpresari ikasketak bukatu eta "Sagazde"n egin zuen lan; gero bertako Industrialdean gerente moduan alkate izan arte. "Eszedentzian nago Industrialdean", aitortzen digu.

**GOIERRITARRA.-** Egingo al diguzu balantzetxo bat 1. legegintzaldiaz?

**JUANBI ERAUSKIN.-** Legegintzaldia gogorra izan da, egoera ekonomikoa ez delako oso ona izan. Eskuak nahikoa lotuta izan ditugu egitasmoak eta aurrera eramateko orduan. Ekonomi ikuspegiak izan du lehentasuna:



Juanbi Erauskin: "Ekonomia ikuspegiak izan du lehentasuna 4 urteotan".

gastuak murriztu behar izan ditugunez, nahi baino hazkuntza txikiagoa izan dugu. 100 pezeta irabazten badi-tuzu, ezin dituzu gastatu 100 edo 110, 80-90 baizik. Saiatu gara diru-sarrerak gastuak baino handixeagoak izaten. Udaletxe barrura begira egin dugu lan asko, gestioa hobetze aldera. Adibidez, herritarrentzako bulegoa bultzatu nahi dugu, informatika-sarea hobetzeko inbertsio handia egin... Herritarrentzako bulego horretan bada egun langile bat, noizean behin zerbitzu horren ardura duena, hori indartu nahi dugu eta zerbitzua beheko solairura pasa. Ordiziak, Beasainek eta Lazkaok bulego bana izango dute. Espe-

rientzia piloto bat da, eta martxan jartzeko egindako ikerketak 3 udaletxeen eta Gipuzkoako Aldundiaren artean ordaindu ditugu. Helburua herritarra bezero bihurtzea da. Administrazioa enpresa bat da, zerbitzu batzuk ematen ditu, eta herritarra da bezeroa.

**G.- Gehiago zehazterik bai?**

J.E.- Adibidez, obralan txikietarako baimenak luzatzeko, 8-10 egun behar ditu Udalak. Orain, eskatzen den momentuan ematea da gure asmoa. Herritarrak ez du udaletxera bi aldiz joan behar, behin joatearekin nahikoa izango du. Beste zenbait ziurtagiri ere eskatutako egun berean eman nahi di-

**GOIERRIKO ZURAK, S.L**

Inportazioko egur biltegia  
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g  
☎ 88 80 23

LAZKAO

**OSASUN**

BELAR ETA DIETETIKA DENDA  
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

**Inprimategia**  
**EGUZZI**

Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfnoa: 88 94 82  
20200 BEASAIN



tugu. Bestalde, momentu honetan, udaletxeetan goizez bakarrik egiten da lan. Beharbada, sistemaren bat asmatu beharko dugu arratsalde ere lan egiteko. Teknologia badago ordenadore bidez eta deiak jasotzeko...

**G.- Zer gelditu da egin gabe diru-eskasiagatik?**

**J.E.-** Rugby-zelaia, Malkaskoko zubia, herriko enparantzaren konponketa, Ordizia eta Itsasondo artean espaloia ipintzea... Beno, rugby-zelaia egitea onartu dugu, eta suete piskatekin datorren legegintzaldirako mar txan egongo da proiektu hori.

**G.- Udaletxeak ez du dirurik, eta aurrekontuen 0,7a Hirugarren Munduarentzat. "Hori zentzugabekeria!" diote batzuek...**

**J.E.-** Elkartasun kontua da hori. Poltsikoa beteta duzunean dirua ematea, hori oso erraza da. Iparrak Hegoari lapurreta egiten diola esaten da, baina lapurreta hori denok ateratzen diogu etekina. Multinazional batek Hirugarren Munduan lehengaiak oso merke lortzen baditu, multinazional horretako langileen soldatak handiagoak izan litezke. Gizarte osoak ateratzen dio etekina. Beraz, zergatik ez zergen 0,7a horretarako bideratu? Gainera uste dut, helburua izan beharko litzatekeela norberen diru-sarreraren 0,7a Hirugarren Mundurako izatea, edo IRPFen 0,7a.

**G.- Zer egin nahi da Ordiziako azokarekin?**

**J.E.-** Asteazkenekoari eutsi eta asteburuan zerbait antolatu, erosketa beste modu batetara egiten baitira egun. Ordizia N-1era begira jarri behar da berriro, hor amu bat jarri, Label Kalitatea duten elikagaiak saltzeko zentrua, bide (errepide) horretatik pasatzen diren



"Irundarrek, Udaletxearentzat gastu bera eta zerbitzu gehiago eskaintzen dute".

J. Marin

guztiak horra joateko, eta alderdi zaharra ondare kultural izendatua izan denez, hortik jendea herrira igotzeko modua egin. Eta Ordiziara etor daitezela, edo Goierriara, Segurara, Zerainera, Aizkorriara, Aralarriera, Oianguara... Askok du eskaintzeko Goierri.

## "Beasain eta Ordizia 'bat' dira"

**G.- Oiangu irundarren esku. Hase-re dago zenbait jende.**

**J.E.-** Eta beste batzuk pozik. Hori erabakitzeke batzordean gehiengo batek irundarren aldeko apostua egin zuen. Ordiziako Udaletxearentzat gastu bera eta zerbitzu gehiago eskaintzeko modua. Hori izan da arrazoia.

**G.- Beasain protagonismoa kentzen**

**ari zaio Ordiziari. Zer diozu?**

**J.E.-** Eztabaida antzua da hori. Zerutik begiratuta, bat dira Ordizia eta Beasain, eta hori ia 22.000 lagun bizi dira, ez 13.000 gehi 9.000. Lehen informatika-sarea aitatu dizut. Jakes, Barrena eta Udaletxea informatika sare batez, fibra optikoa aprobetxatuz, batu nahi ditugu. Hori ikertzen ari da Eusko Jaurlaritza eta ikerketa horretan Beasain ere sartu dute. Gasteiz, Bilbo eta Donostia, administrazioaren alorrean ere gauza bera egiten ari dira. Beasain eta Ordizia Bilbo-Donostia ardatzean daude, eta gerora oso erraza izango da informatikaren bidez Ordizia eta Beasain lotzea, eta telefono dei batekin bi herriei zerbitzua ematea. Borondatea badago, epe ez oso luzera, bi administrazioak batzeko. Eta Lazkao ondoan dago.

 Jon Imanol Iturrioz

**FS**  
oto istema

Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan  
Domingo Unanue Plaza  
☎ 88 93 25 ORDIZIA

**-EZKURRA -ATEAK**

Ateen ezartze eta salmenta  
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2  
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

**GOIERRITARRA**




**88 96 12**



## Ingurune eta kontsumo kanpaina Zaldibian

**H**erria garbitzeko eta txukuntzeko ideia ez da gaur goizekoa Zaldibian. Herria apaintzeko ideien lehiaketa egin zen iaz. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailera aurkeztu, eta asmoa interesgarritzat jo zutenez, ingurugiro teknikari bat kontratatzeko aukera izango du Zaldibiak. Hurrengo urratsa herritarrek proposatutako lanak teknikariak gauzatu ditzan dirulaguntzak lortzea da. Dena den, teknikariaren zain egon gabe, Euskal Herrian aintzindari den kanpaina jarri du martxan Udalak: ingurunea garbitu eta telefono, argi eta berogailu kontsumoa murrizteko kanpaina. Eskola, taberna, kontsultorio, elkarte, Egoitza, enpresa eta herritarrei luzatuko zaie.

*"Ingurunea garbitu, energia aurreratu, kontsumoa murriztu nahi da; hau da, azken batean guztiok kontzientziaztea da helburua", Mari Sol Alkaia udal gerenteak adierazi digunez. Beraz, "diru publikoa behar den neurrian bakarrik erabiltzeko heziketa bultzatu nahi dugu". Guzti horretarako kalean panelak, eta pegatina eta zintzilakario adierazgarriak jarriko dira Udaletxe, Eskola, Kontsultorio eta Kultur Etxean. "Gauza sinpleak dira, baina oso adierazgarriak", esan du.*



Itñaki Zoilo arkitekto ikasle zaldibitarra arduratu da materialaz.

Esaterako, eguzkiaren argia izan eta argia pizturik dagoen pegatina; berogailua piztuta izan eta aldi berean leihoa irekita eduki... Horrekin batera, pipa, kakauxa eta pistatxoak azalak botatzeko poltsatxoak ere banatuko dira fruitu lehor horiek erosten diren momentuan. Bestalde, tabernetan txotxak, azeituna hezurak, papera... lurrera botatzeko dugun ohitura ere aldatu nahi da. Herritarren iradokizunak edo sugerentziak jasotzeko panel berezi batzu ere jarriko dira.

100.000 pezetatik beherako aurre-

kontua du. Honekin, burua erabiliz, diru gutxiarekin zein gauza politak egin daitezkeen adierazten du zaldibiarrak. Azaroa erdialdera hasi da kanpaina. Bukatu, "inoiz ere ez da bukatuko". Sasieta Mankomunitatearekin elkarlanean arituko dira eta Eusko Jaurlaritzan, Diputazioan eta Euskal Herriko herrietan izango dute kanpaina honen berri, "ideiarekin jarraitu nahi izanez gero".


 Loinaz Agirre



# MUJIKA



**BEASAIN** ☎ 88 74 00



## GOITGI

## OKINDEGIA

**Ogigintzan onenak!!**

**Etxezarreta z/g**  
**ORDIZIA ☎ 160501**

**Barandiaran Taldea, 2**  
**ZALDIBIA ☎ 880737**

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

# LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824  
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070  
BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA  
TAILERRA

## B i O K, C. B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.  
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



### Urriaren 23a

Hauek izan dira urriaren 23ko hauteskunderen emaitzak Ataunen: HB, 472 botu; EAJ-PNV, 283; EA, 244; gainontzeko botuak, 39; zentsoa, 1421; abstentzioa, 383 (% 26,95). Gainbegirada batez zera azpimarra daiteke:

- Duela lau urte leku bererako jaso-tako botuen aldean, oraingoan 6 gutxiago HBk; 47 gutxiago Eak; 76 gehiago EAJ-PNVk.

- Aurtengo ekainean izandakoen aldean berriz, guztiek hobetu dituzte emaitzak, abstentzioa asko jetsi den heinean: %37,4tik %26,9ra.

- EAJ-PNV/EA zatiketa eman zenetik, lehenengo aldiz aurea hartu dio EAJ-PNV alderdiak EAri oraingoan. Ataunen EAJ-PNVk zatiketa ondorengo emaitza onenak lortzeaz gain, Eak aurtengo bi hauteskundeetan nozitu duen jetsiera da horren eragile.

### “Urruzunotar” berria

Eskuan dugu dagoeneko, Naiara Etxeberría Yoldi gazteak aurtengo “Urruzuno” literatur lehiaketara aurkeztutako lana argitaratzen duen liburua. Naiararen “Badajoztik edo-

nora” prosa lana, Badajozen hiru urtez preso dagoen ataundar bati iazko San Martin egunean sortzen zaizkion burutazioek osatzen dute. “Eginiko maltzurkeria batzuen ordaina jasotzen besterik” ari ez den, eta bere herrikoentzat “herri guztietan izaten den pertsona arraro horietakoa” omen dela dioen presoak, une horretan bere jaioterrian festatan dabilzan bere kirakoak ditu gogoan. Hauek zertan ibiliko diren imajinatzearekin batera bere bizitzako pasarte batzuk deskribatuz, oso ezagunak zaizkigun leku eta kontuak erakartzen dizkigu gogora, gure uste apalean oso ondo kontzentratua den kontakizun polit bat lortuz. Zorionak Naiara. Hurrengoaren zai gauzkazu.

### Intsumisio epaiketa

Hilabete honen 2an Donostiako Auzitegian epaitu zuten Joxe Martin Barandiaran Agirre, intsumisioa. Fiskalak, martxoaren 9an epaitua izan zen beste intsumisio ataundar batentzat (Iñigo Goikoetxearentzat alegia) eskatutako 18 hilabeteko kartzela zigorra bera eskatu zuen Joxe Martinentzat ere.

### Otsoa irratia

Joxemiel Barandiaran Eskolako

ikasleek, kurtso berriko irrati ekitaldiari ere ekin diote. Ostiral eguerdie-tako ordubatatzen sartzen zaizkigu etxeetara FM 108 sintonian, Otsoa irratikoak.

### Udalbatza bilkura, Aian

Urtean zehar, noizbehinka San Gregorio eta Aian Plenoak egitea erabakitakoaren ondoren, hil honen 8an Aian bildu zen Udalbatza, bere ohizko bilkuran. Ekainaren 21ean San Gregorion egin zen, udaletxetik kanpoko lehen bilkura.

### Telebista pribatuak

Hilabete honetan bukatuko dituzte Muski mendian, telebista- kate pribatuak ikusi ahal izateko egin behar izan diren lanak.

### Telefono zenbakiak

Udalak, Ataungo telefono-zenbaki zerrenda berria fotokopiatzeko aukera jarri du edozeinen esku, behin Telefonikatik zerrenda hori eskuratzeara lortu ahal izan duenean. Barriola liburudendan izango da zerrenda eta 125 pezetaren truke fotokopiak.

 Joxe Begiristain

*Unanue*

**GOZOGINTZA**

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51  
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49  
J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36  
Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

**ORDIZIA**



**GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO**  
**BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE**

IZEN-ABIZENAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA .....

KONTU KORRONTE ZENB. ....

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI “GOIERRITARRAK K.E.” 124. P.K. ORDIZIA



# Liburutegiko obrak aurreraturik

Herri txikia izan arren, liburutegi on bat du Itsasondok aspalditik, bertan 7.000 liburu baino gehiago daudelarik. Liburutegia aurtengo martxoaz geroztik itxirik dago, liburu gehiago sartzeko lekurik ez baitzegoen. Hori ikusirik, obra bat egitea erabaki zen. Horrela, zenbait paret bota, lokala margotu eta beste zenbait aldaketa egin dira.

Berrikuntza nagusienak apalategi mugikorrak jartzea eta informatizatzea izan dira. Apal hauei esker, lekua hobeto probetxatu eta gainera askoz liburu gehiago sar daitezke. Informatikari esker, lehen eskuz egiten zen guztia orain ordenagailuz egingo da. Honen ordea, lan asko eskatzen du. Horretarako, Mari Jose Gorostizu liburu-zaina eta Gerardo Uribecheberria artxibatzailea lan ugari egiten ari dira liburu guztiak artxibatzen. Lehenik liburuaren fitxak sartu behar dituzte; on-



*Etxeetan dauden liburuak itzultzeko erregua egiten digu Mari Jose Gorostizuk.*

doren bazkide eta maileguen fitxak baita ere. Sistema honi esker, askoz errazagoa izango da behar ditugun liburuak eskuratzea.

Liburutegia noiz irekiko den kalku-

latzea oso zaila bada ere, Gabonetarako literatura guztia (euskarazkoa, gaztelaniazkoa eta baita atzerriarra ere) informatizatzea espero da. Zientzia, e.a.-etako liburuek denbora gehiago eskatzen dutenez, horien lana beranduago amaituko da. Aitatu-takoez gain, komikiak, entziklopediak, mota askotako aldizkariak, e.a. ere izango dira. Liburutegia itxirik egon arren, Mari Jose eta Gerardok astean zehar lan egiten dute bertan, 8.00etatik 12.00ak bitartean. Norbaitek liburu konkreturen bat behar balu, ordu horietan laguntzeko prest leudeke. Gainera, liburutegian artxibaturik dauden liburuen berri jakin dezagun, herriko etxeetan liburuxka bat banatzea espero da Gabonetarako.

Liburutegian eman diren aldaketak ikusirik, bazkide egingo zarete, ezta?

*Edurne Ayuso*

## ZALDIBIA

### Ardiki Eguna, azaroaren 27an

Azaroaren 27a oso egun berezia eta garrantzitsua izango da Zaldibian: Ardiki Eguna. Jakinekoa denez, Zaldibia artzain-herria izan da betidanik, gaur egun artaldeak asko urrituta badaude ere. Goizeko 9etan emango zaio hasiera Egunari, tritikiti-soinu alaiarekin. Ondoren, "latxa" arrazako ardi-erakusketa irekiko da. Baita ardiarekin erlazionaturiko artesautza-erakusketa ere: artilea egin, gaztak ondu, mamia...

Denetan garrantzitsuenak, ordea, Zaldibiko espezialitatea delarik, mondeju lehiaketa izango da. Honako arautegi honen arabera burutuko da lehiaketa hori: irekia da, hau da, nahi duen guztiak har dezake parte; hori bai, mondejuek zuriak izan behar dute

eta Zaldibiko estiloan eginak. Porrua, ardi-seboa eta arrautza izango ditu osagai nagusiak; horrez gain tipula, perexila eta ardi-trikaiak ere nahastu dakizkieke. Ondoren, masa hori heste naturalean sartu behar da.

Mondejuak, euren saldatan, goizeko 10etarako Resti pilotalekura eramane behar dira, lehenengo irakinaldia emanda. Antolatzaileek mondeju-ontzi bakoitzari zenbaki bat ezarriko diote, nor norena den aldeztu aurretik inork jakin ez dezan, batez ere epaimahaikoei. Kalitatea baloratze-ko garaian honako alderdi hauek izango ditu kontutan epaimahaiak: itxura, gainazala, kortea, zaporea, usaina eta osagaien txikiketa-tamaina. Sukalde kontuetan aditua den jen-

de ezagunez osatuko da epaimahaia. 3 sari daude: 1.arentzat, 50.000 pzt. eta txapela; 2.arentzat, 35.000 pzt. eta 3.arentzat, 20.000.

Ondoren, sari banaketa eta tartean Goiburu eta Iraolaren bertso-saioa izango dugu. 14,30etan, lagunarteko bazkaria; ardiki osaturiko menua emango da 1.500 pztatan. Bazkaltzera etorri nahi lukeenak aski du 160338 telefonora deitzea edota txartela jasotzea, Zaldibian, taberna guztietan; Ordizian, Etxaniz tabernan; Azpeitian, Pastorkua tabernan; Tolosan, Agustinen tabernan.

*Rufino Iraola*



# Araingoiti Zaharren Egoitzako aste kulturala



Giro onean igaro zuten pasa den astea Beasaingo Araingoiti Egoitzan dauden agureek. Azaroaren 7an bota zuten txupinazoa jai-giroko asteari hasiera emanez. Hainbat ospakizun antolatu zituzten: txapelketak, hitzaldiak, diapositiba-emanaldiak, kontzertuak.

Gaur egun Araingoitin 65 agure daude. Egoitza bi solairutan banatzen da. Lehen solairuan dauden aiton-amonak dira batipat ekintzetan parte hartzen dutenak, eta batez ere, emakumezkoak. Aste kulturalako txapelketa eta mota desberdinetako ekitaldietan 15-20en bat lagunek

hartu zuten parte. Dena den, aste berezi honetaz gain, urte guztian zehar hainbat eta hainbat ekintza burutzen dituzte. Esaterako, Araingoiti Abesbatza, eskulanak eta bidaiak. Eskulanak herriarrei erakusteko aukera izan dute aste kulturalaren barnean, eta artea egiteko gai direla ikus ahal izan dugu. Bidaietarako astia ere izaten dute urtean zehar. Sasoikoenek mendi irteerak egiten dituzte eta ibiltzeko gogo handirik ez dutenak autobusez. Orain Eguberriak gerturatzen ari direnez, eta festa astea pasatu denez, Gabonetako ekintzak antolatzen hasiko dira laster.


## Odolki Kofradia

Orain dela bi urte otsailaren 5ean hasi zen ospatzen odolki dastaketa-txapelketa Loinazko San Martinen bederatziurrena ospatzearekin batera. Aurten, Odolki Kofradiak, azaroaren 11an ospatzea erabaki zuen. Hori dela eta, pasa den azaroaren 12an Bareak Elkartearen odolki dastaketa-txapelketaren 3. edizioa ospatu zen.

Data aurrerapen honen arrazoi nagusia harakinak izan dira. Harakinen ustez, azaroan otsailean baino odolki hobeak egin daitezke, lehengaiak egoera hobean izaten baitira. Gainera, Ormaiztegiko Iñaki Campos irabazleak otsailaren 5ean ospatuko den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak egin beharko ditu, eta data aldaketa hau mesedegarria izango da horretarako harakinen ustez.

Hiru bailaretako partaideak aurkeztu ziren: Tolosalde, Urola eta Goierrikoak. Txapelketan aurkezteko baldintzak hauek izan ziren: lehengai nagusizat odolaz gain, urdegantza izan behar zuten. Tripaki naturalez beteak, eta porrua eta tipularekin.

 Izaskun Salazar



## OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST  
Etxebizitzak berriak salgai Ordi-  
ziako Elkano kalean  
Bekokale 17-1.  
ITSASONDO

☎ 16 02 22

## IBAI - ONDO



ZURGINTZA  
HALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:  
Antzizar Auzoa, z/g.  
Tfona: 880543 BEASAIN

## BERRIZ ARANBURU

## ERROPADENDA

Nagusia, 8  
Tel: 88 04 53

BEASAIN



**RENAULT**

AGENTZIA

## LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea  
☎ 882442-888901  
Faxa: 888901  
LAZKAO



## Astelehenetako peria



Asteartetan Beasainen, asteazkenetan Ordizian... eta astelehenetan Lazkaon izaten dugu peria, azoka. 1982ko urtarrilean hasi zenez, azoka "gaztea" dugu gurea. Negu eta uda, udaberri eta udazken, euri, haize, aldagoi edo eguzki-erre, goizeko 7.30etarako mugimendu handia egoten da plazan. Kamioi eta gaineratiko automobiletatik jantzi, jaki eta beste hainbat tresnaz betetako kaxak jaitsi eta herritarrok esnatzerako txukun asko prestatzen dituzte beren txokoak saltzaileek.

Goizetik eguerdira arte batetik bestera korrika, txanda noiz iritsiko zain eta azkenerako poltsaz kargatuta ikus-

ten den gehiengoa emakumezkoa da. Eta eguerdi alderako kontu-kontari eta saltsan, solasean lasai ikusten den gehiengoa, gizonezkoa.

30 bat saltzailetatik 8 dira lazkaotarrak. Fruta eta fruitu- lehorrak, barazkiak, txerriak, gazta, arraultzak, bakailoa, gozokiak, patata, ardoa, oinetakoak, arropa, opariak... asteburuan hustu ditugun etxeko apalak berriz betetzeko aukera paregabea astelehenetako.

Urteko eta metro karratuko 1.695 pezeta ordaintzen dute, Lazkaoko hiru barazkizaleek ezik beste saltzaile guztiek. Beraiei galdetu behar asko ala gu-

txi den eta herriko dendariei periak mesede ala kalte egiten dien...

### LGA-k txalaparta ikastaroa

Lazkaoko Gazte Asanbladak txalaparta ikastaroa antolatu du. Hilaren 8an izan zen bileran erabaki zenez larunbatetan emango dituzte zaldibitar txalapartariak eskolak, Lazkaoko udaletxe azpiko arkupeetan. Ikasi bitartean "txalaparta" izango bada ere, ikasitakoan txalaparta-doinua entzun dezagula!

### Ikastaro gehiago

Udaleko Kultura Batzordeak bi ikastaro antolatu ditu: marrazkia eta margoketakoa bata eta enkuadernazioakoa bestea. Ikasi nahi duenak badu hemen eta han aukera...

### Maizpideko ekintzak

Afal ondorenetarako hainbat ekintza antolatzen dituzte hileroko Maizpiden, ez bertako ikasleentzat bakarrik, baizik eta parte hartu nahi duen guztientzat. Ekintzak iluntzeko bederatzietan, Maizpiden eta doan izaten dira. Hil honetan esate baterako, Goierriko pare bat bertsolarirekin bertso-saioa izango da 15ean, asteartea, eta 23an, asteazkena, Euskal Herriko mendiei buruz Xanti Gorrotxategik prestatutako diapositiba-emanaldia.

 Mari Joxe Madariaga

## GABIRIA

# Murgilko herri-sailaren garbiketa laster

Joandako asteko ostegunean Udalak egindako bilkuran herri-pinudiko sailaren garbiketa Noareko Jose Mariri eskaintzea erabaki zen, honek aurkeztutako aurrekontua aztertu ondoren. Honela bada, datozen egunetan ekingo diote lan honi eta aurrekontuari dagokionez, 600.000 pezetakoa izango da. Kontuan izan behar da sailak guztira lau hektarea t'erdia inguru dituela, eta garbiketa lan gehienak eskuz egingo

dituztela, hau da, makinak lurra arrotzean egingo lituzkeen kalteak ahal den neurrian baztertuz. Honetaz gainera, bertan dauden arte eta beste zenbait zuhaitz mota ez botatzea erabaki da, eta datozen hilabeteetan erabaki beharko da sail horretan zer-nolako zuhaitz landareak aldatu daitezkeen. Dena dela, oraingoz esan daitekeena da pinurik ez dela aldatuko.

### Mikel Armendariz aparejadore berria

Fermin Osinalde zenak utzi zuen lanpostua betetzeko Mikel Armendariz Leunda jaun beasaindarra kontratatzea erabaki du Gabiriako Udalak. Honela bada, hemendik aurrera horren beharrean izanez gero, ostiralero Udalatzeko 2. solairuan prestatu zaion bulegoan izango da arratsaldeko 6etatik 8ak aldera arte.

 Gabino Murua





Arg.: J. Marin

## San Bartolome ermita

San Bartolome inguruak berreskuratzen ari da Udala. Orokorrean erai-kuntzaren egoera ona bada ere, aurrekaldeak ikutu batzuren behar nabaria aurkezten du. Jakina denez, 1509ko uztailaren 26an Santa Ana Kofradiaren ordenantzak onartu ziren historia handiko ermita honetan. Ez dugu oraingoxea, beraz, San Bartolome auzoan da goen eta Otegi familiak zaintzen duen eraikin hau. Bertan egiten ari diren kanalizazio lanen ondorioz ermita inguruak garbitu beharrean egon dira, honela baseliza zahararen irudi berri bat ikus dezaketelarik bertara inguratzen diren bisitari guztiek. Lanak amaitzean, ingurua loreztatu, argiztatu eta gainera, eserleku batzuk ipintzekotan dira.

## Hitzaroren logotipo bila

"Hitzaro" euskara elkartearen logotipoa aukeratzeko deialdia luzatu berri dute. Honako baldintzak bete behar dira: Ordizian jaioak edo bertan bizi diren guztiek parte har dezakete; lanak Din-A4 neurriko kartulinaran aurkeztu beharko dira; egileak kolore bat baino gehiago erabili beharko du eta egile bakoitzak gehienez 3 logotipo aurkeztu ahal izango ditu; bertan "Hitzaro" hitza agertzea ezinbestekoa izango da, "Euskara Elkartea" eta "Ordizia" aukeran egongo direla; egilearen datuak sobre batean entregatuko dira, batean lanaren edo lanen izenburuak adieraziz, eta beste batean lana edo lanak sartuz. Lan guztiak Ordiziako 4 posta kuxara bidali edo bere egoitzan (Altamirako eskola zaharrean), edota Barrenako bu-

legoan utzi beharko dira abenduaren 15a baino lehen. Irabazlearentzat 15.000 pzta.ko saria izango da.

## Oroith abesbatza

Oroith abesbatza izan da berriki EAEko ordezkari bakarra Tolosako Nazioarteko 26. Abesbatza Lehiaketan. Ilusio handiarekin joan baziren ere ordiziarak, burumakur bueltatu ziren, ez baitzuten saririk lortu. Polifonia sailean, urduritasunak jota, paper ona ez egin arren, folklorean guztiz kontrakoa gertatu zen, baina epaimahaioek ez zuten kontutan hartu hori. Honako ekitaldi hau izan da bere zuzendaria den Amalia Ibañezen azken parte hartzea, izan ere bai baitoa. Bere ordezkari Gorka Aierbek hartuko du gidaritza.

 Aitor Calvillo



Zenbait intsumiso elizazpian aurreko larunbat gauean, intsumiso presoei elkartasuna adieraziz.

## IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

### KARROZATEGIA

Hiribarren, 24  
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO  
(Gipuzkoa)



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

## KUKO

### Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g  
Tfnoa.: 88 28 93  
ORMAIZTEGI



# Eskulan ikastaro, dantza, akrobazia... zer ez?

Gure herri honetako Kultur Batzordeak, beti eginbeharrak alde batetara pixka bat utziz, bakoitza bere gustoko "lanetan" aritzeko moduko lekua eta aukerak eskeintzen ditu, hainbat eskulan ikastaroa antolatuz.

Urtero antzekoa izan ohi da ekintza sorta: zeramika, talla, makramea... Baina aurreko gorputza landu eta bera-rekin ondo pasatzeko beste bi aukera ere baditugu: dantza (salsa, mambo, txa-txa-txa...) eta akrobazia.

Eskulanetarako ohitura ongi uztartua dago herrian eta gezurra badirudi ere, geroz eta jende gehiagok du denbora- pasarako eskulan hauek egiteko joera. Aspaldikoa da Kultur Etxeko gelak jendez josita ikusten ziren garaia, orain herriko beste lokal batzuek ere aprobetxatu baitira jendearen gustoko "lan" hauetarako. Talla eta zeramika-rako esaterako, Zigor auzoan aurkitzen den eta lehen Ikastolarena zen lokala erabiltzen da. Berau fregadera egoki, labe, mahai eta erreminta ugari hornitu du Udalak. Gainera esan behar da lokal hauetan urte guztian lan egiteko aukera dagoela, eta ez ikastaro garaian bakarrik. Horretarako udaletxean izena eman eta giltza eskuratu besterik ez da egin behar. Hortik aurrera saiatu eta bertako makinaria alferrik herdoil ez



Kultur Etxean izango dira pintura eta eskulan berezien ikastaroak.

dadin moduan jartzea da kontua.

Bestalde, telargintzarako nola makrame eta bestelako hari lanetarako udaletxearen gainean dagoen pisu bat prestatu da. Bertan, telarrak egiteko makinak eta beste zenbait lanabes gehiago jarri dira zaletuen esku.

Gainontzeko eskulanak, pintura eta eskulan bereziak, Kultur Etxean egin ohi dira. Eta saskigintza maite dutenek aurreko urteetan bezala guraso elkar-

teko aretora urreratu beharko dute.

Ikastaroak 30 edo 50 ordutakoak izan daitezke baina hau erabakitzerakoan talde guztiak egon behar du ados. Kuotak: 2.000 pezeta helduek eta 1.000 ikasle eta jubilatuek.

Informazio gehiagorako dei Kultur Etxera (18 70 99) edo Udaletxera (18 71 00).

 Aloña Galarraga

## ORMAIZTEGI

### Sanandresak gainean

Urtero ohi bezala, lehen izotzekin batera festarako sena berpizten zaigu ormaiztegiarroi, Sanandresak inguratzen diren heinean. Festa hutsaren truk ez dela hasten eta aurtengoan ere programa zabal bezain osatua dugu. Ia bi aste eta erdiz luzatuko dira ekintza ezberdinak eta honako hau aurrerapen bat besterik ez da.

Aurreko astea izan zen mendiari eskeinitakoa. Ez gara hasi ere egin ordea. Datorren asteburuan izango da ekintza garrantzitsuenen kontzentrazioa: ostiralean herri afaria, larunbatean mo-zorroak eta igandean ziklokrossa, guz-

tia musika eta kultur ekintzez lagundurik. Aipatzekoa I San Andres Eskulangintza Erakusketa. Sanandres bezpera umeen eguna izango da eta, amaitzeko, aldatzen ez duten bitartean, Sanandres eguna 30ean.

#### II San Andres Pala Txapelketa

Txapelketa amaitzera doa eta azken faserako klasifikazioa lortu dutenak bikote hauek izan dira: Jon Irizar-Jesus Irizar, Josu Mendia-Aitor Oñatibia, Josu Lasas-Iñaki Murua eta Imanol Olanas-Simon Idiakez. Txapelketako finala herriko zaindariaren egunean jokatuko dute. Bukaerarako

utzi gabe, parte hartu duten 14 bikoteek bazkaria eta kontsolaziozko mus txapelketa egin zuten aurreko larunbat batean.

#### Gazteen aldizkaria

"Harrikada" aldizkariaren bigarren alea argitaratuko dute gazteek hilabete bukaerarako. Azalduko diren gaien artean, besteak beste, Koke Lasas mendizaleari eta Anbrosio Apaolaza eskubaloitzaletako entrenatzaileari eginko elkarrizketak izango dira.

 Iñaki Leturia



## II Elorri Idazlan Sariketa

Elorri Kultur Elkarteak, ume, gaztetxo eta gazteen euskaraz idazteko trebetasuna sustatuko duen II Elorri Idazlan Sariketa antolatu du. Lehiaketa 3 sailetan banatuta dago: BUP-REM-FP-COU mailakoentzat; OHOKo 7. eta 8. mailakoentzat, eta OHOKo 5. eta 6. mailakoentzat. Edozein segurar edota Laiotz Herri Eskolako ikasle diren Zerain eta Mutiloko edonork parte har dezake. Lanak aurkezteko epea abenduarekin 31koa da. Epaimahaia Joxean Ormazabal zezagamar idazleak, Iñaki Murua bertso-lari gabiriarrak eta Josetxo Ugalde irakasle segurararak osatuko dute, honako puntuak kontutan hartuz: gaiaren trataera, euskararen erabilera (zuzentasuna, aberastasuna eta egokitasuna) eta literatur eta estilistika balioak. Epaimahaiak hurrengo urtarrean emango du jakitera bere erabakia, sari bikainak banatzeko antolatutako ekitaldian.

Bestalde, I Elorri Idazlan Sariketara aurkeztutako 27 idazlanak, liburuxka batean bildurik argitaratu dira. Guztira 400en bat ale izango dira; bertako hainbat denda, lantegi eta Udalarik esker, dohan banatuko da herrian zehar.

### “Inutillen Afaria”

Datorren larunbata, hilak 26an, egingo dute Segurako hainbat gaztek beraien urteroko “inutillen” afaria.



Ez daude denak, baina bai hoberenak, soldaduzkarako “inutil” zirenak.

Iluntzeko 7etan hasiko dute festa Antokalenan, pipar-txiki janarekin, ondoren trikitixa lagun dutela inutilen poteoa herrian zehar. Iazkoan 15en bat lagun elkartu ziren eta aurtengoan kopurua gaitzitzea espero da. Afaria Magdalena jatetxean izango da, eta izen ematea 25a baino lehen egin beharko da herriko tabernetan jarriko diren txarteletan.

### “Zopajale Astea”

Zopajale Elkarteak antolaturik, azaroaren 19an, gaueko 10etan Mus Txapelketa jokatu da. Baldintzak:

bikoteko 2.000 pza., jokuak 8 erregetara, 8 hamarrekotara eta 3 usteletara egingo dira. Izen ematea Elkartean bertan. Azaroaren 24an, gaueko 9etan Juanito Rubio Beloki sukaldari ospetsuaren hitzaldia, sukaldaritza praktikoa (E.H.-ko produktuen, garai garaiko prestaketa) duela gaitzat. Azaroaren 26an, gaueko 9etan, Segurako Koruaren emanaldia. Afarirako izenak 22a baino lehen eman behar dira.

 Joseba Telleria



**LANCIA**  
**ETXE - AZPI**

☎ 88 10 61 - 88 29 46  
**ORMAIZTEGI**



**ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

*Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe*

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHAU

**AZKARATE**

POL. INDUSTRIAL IBABE  
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO

**UNTXUNDEI**  
**Garajea**



**OSINALDE**  
**Karrozategia**

☎ 88 28 21 - 16 07 06  
**ORMAIZTEGI**



## Kultura eta turismoa

Hondartzarik ez badu ere, barne-turismo gero eta gehiago iristen ari zaigu. Izan ere, harri bitxi eta altxor ugari ditu Zerainek. Andoni Alustiza, udaletxeko kultur gizonak esan digunez, 5.000tik gora lagun pasa izan dira Museotik, 100 pzta. ordainduz. *"Zerainek zera nahi du, aurrera egitea turismoak eskekin diezakegun espektatibekin eta, dudarik gabe, turismo erruralean erreferentzia puntua izan nahi du"*. Udalak 30.000 foileto argitaratu ditu guztira dagoeneko; 15.000 museoarenak bakarrik. Iazkoan 8.000 lagun azaldu ziren herrira, bere mirari turistikoa ikusi eta ibilbideak egitera. Aurtengoan 10.000tik pasatzea espero da. Andonik ziurtatzen duenez, *"harrotasunez esan dezakegu: herri guztia irauli da proiektu honetan eta gipuzkoar guztiak eta Gipuzkoaratzen diren asko itxaroten ditugu, ateak zabalik"*.

## Mandioan zer

Maximo Azkona eta Isabel Elgarresta Zumarragako senar-emazteak ditugu estreinatu zaharra ere ez den Mandioaren kargu egin direnak. Beraiek daukate Informazio Bulegoaren telefonoaren (801705), tabernaren eta



aldameneko museo etnografikoaren kargua. Nekane Alustizak, berriz, bertako produktuak saltzen ditu souvenirren tendan. Genero mota bakoitzak bere jatorria adierazten du: Unslategiko babarrunak, Basozabalgo gaztak, Otaza-Bekoko sagarrak, Otaza-Goikoko gaztain eta mizpirak, Errementeri baserriko oiloen arraultzak, Mari Karmen Mendizabalen gantxiloak, Juli Lasaren artilezko galtzerdiak, e.a. erosi ditzazke bisitariak.

Inguruko herrietako produktuak ere

aurki daitezke: Segurako Ermanasoroko eztia, Ormaiztegiko Sagaspeko baserriko ogia eta Muruaren odolkiak, Zegamako Gregorio Aramendiren zeramika piezak eta beste zenbait bitxi ere bai. Zeraindarrentzat ere beharrezkoa zen Mandioa, orain ez dute joan beharko Zegama edo Segurara olio, azukre edota gatza bezalako oinarritzko produktuen bila.

 *Ganbarako xaguak*

## ZEGAMA

# Parrokiko obren kontuematea

Joandako uztailan inauguratu ziren eliz-parrokian eginiko obra-lanak eta bertara eraman zituzten Iruetxetako Amabirjin eta Aitzgorriko Gurutzea. Bertan izan zen herrian bizi diren eta kanpoan dauden herritar ugari.

Hona hemen obren batzordeak eman dituen kontuak. Gastuak: aldameneko aldareen, aurrekoaldearen eta presbitergoaren zaharberritzea, 6.410.227 pzta.; pintura eta berrabiltzea, 540.442; elektrizitatea, 333.802; alarmaren instalakuntza, 329.302; errezeptorea eta diapositiben pantaila, 440.343; zenbait gastu, 318.768. 8.372.884 pzta. guztira, beraz. Sarretan, 3.144.500 pezetako laguntzak

eta obispaduen miloi bateko subentzioa; 2.756.083ko partikularren maileguak eta banketxearen kreditua 1.500.000koa da. Guztira, 8.434.092 beraz, kontu berrian 61.208 pzta.ko saldoa gelditzen dela.

Emandako datuok erakusten duteenez, norbanakoen prestamuei, banketxeko kredituari eta honen korritu altuei aurre egin beharrean dago obra batzordea: 4.256.083 pezeta eta kredituaren interes eta gastuak itzultzekotan. Laguntzak Kutzako 01.1047750.2 kontuan eta BBVko 053419.0an sar litezke.

Saneamendua eta papeleraren lurreratzea

Lurraldeko saneamendu eta horni-

tze plan integralaren barruan aurkitzen da Zegamakoa ere, 73 miloi pezetako dirutzako aurrekontuarekin. Kontrata Etxaide eraikitzaileari eman zaio eta urriaren 24an hasi zen lehen tramua obretan. Hori bukatuta, atzeratzen joan den sahiesbide berriari ekingo zaio. Ondoren Txarape, Zupurruti, Alderdi eder eta Beuntzeren zorua konpontzeari. Papelera ohia lurrarekin berdintzea, berriz, beharrezkoa zen, hondamen egoeran eta arriskutsua baitzegoen; Teide enpresak hartu du bere gain eta azaroaren 14a zuen hori botatzeko epe muga.

 *Behin Behinekoak*



# Aldanondo: "Txirrindularitzan ez dut erreta bukatu"

**X**abier Aldanondo beasaindarra txirrindularitza profesionala utzi du. 16 urtetatik 27 urtetara bizitakoarekin oso gustora dago, berriro atseginez errepikatuko omen luke. Baina ia 15 urte egin ditu astebukaerak disfrutatu gabe eta orain ez du denbora alperrik galdu nahi.



**Galdera.-** Zer dela eta utzi duzu txirrindularitza?

**Erantzuna.-** Taldeak emaitza txarrak izan ditu aurrean eta aldaketaren bat egin beharra zegoen etxeari begira. 6 txirrindulari geratu gara kalean eta beste 6 gazte hartu dituzte. Ez naiz saiatu beste talderen bat aurkitzen, oso zaila nuela bainekien, gainera, jakina zen baja nintzela eta ez dut eskaintzarik jaso. Ikusten nuen noraino iritsi nintekeen eta jarraitzeko aukera izan ezker jarraituko nuen baina ez edozein prezioetan. Adin honetan beste zerbait behar da eta konpensazio bat ez baneukan, hobe uztea.

**G.-** Zer egiteko asmoa duzu orain, bai bizi normalean bai txirrindularitzan?

**E.-** Orain Ingenieritza Teknikoko azken kurtsoa bukatu behar dut eta ondoren aitarekin tailerrean lan egingo dut. Txirrindularitza munduan berriz, ez dut erreta bukatu, utzi nuenetik denbora du-

danean ibiltzen naiz. Baina konpetiziorik ez dut egingo. Orain, onartzen banaute, zuzendari ikastaro bat egin nahi dut. Behar bada, bizimodu bezala ez dut mundu hau aukeratuko baina, mutikoezin edo denbora librean ibiltzea gustatuko litzaidake.

**G.-** Lanbide bezala ondo ordainduta al dago?

**E.-** Jende gutxi egiten du dirua lehenengo urteetan. Talde onetan daudenak edo laisterketa batzuk irabazteko posibilitateak dituztenak ondo daude, baina gutxi batzuk dira. Ekipo txikietan dauden erdi mailakoek oso gutxi irabazten dute.

**G.-** Eta pelotoiko giroa telebistan ikusten den bezain ona al da?

**E.-** Gutxi gora behera denok ezagutzen gara, denbora asko pasatzen dugu batera. Lagun eta ez hain lagunak dituzu, lasterketa berean kontrario dena 10 Km.tan interes berdinengaitik lagun izatea pasa liteke. Bestela, egoten den

tentsioa egoteko, ez da haserre handirik egoten eta giroa nahiko ona da.

**G.-** Zein izan dira karrera gustokoenak? Eta gogorrenak?

**E.-** Gustokoenak Euskal Herrikoak, alde batetik etxean korritzen delako eta bestetik, oso onak direlako nazioarteko mailan. Munduko Kopakoetan, Giro eta Tourrean ere oso gustora ibili naiz. Gogorrena berriz ez da ibilbidearen arabera, norberaren

sasoiaren arabera baizik. Momentu txar asko pasatzen dira karrera askotan, baina batipat Giroko zenbait etapa menditsu oso gogorrak izan dira eguraldi eta ibilbide aldetik.

**G.-** Zein izan dira txirrinduaren alde onak eta txarrak?

**E.-** Onak: lagun asko egin eta esperientzi oso politak izan ditudala. Diru aldetik ere lanean baino zerbait gehiago irabazi dut. Uste dut txirrindu munduan zorionekoa izan naizela, talde on batean egon naiz, gaixotasun eta lesioekin ez dut arazorik izan. Bestela ez dut oroitzapen txarrik, asko sufritu eta konpentsaziorik ez izanik. Askoz hobe lasterketaren bat irabazi izan banu, baina nahiz eta hori ez lortu ez naiz frakasatu bezala ikusten.

**G.-** Aurrean gazte asko igo behar da profesioaletara, nola ikusten duzu egoera hau?

**E.-** Neri txirrindularitzako garai hobereena tokatu zitzaidan, orduan ari ziren taldeak sortzen, telebista sartzen, gazteak igotzen... Orain geroz eta talde gutxiago dago, eta igo diren gazteak "Euskadi"ri esker igo dira profesioaletara. Urte hauetan gutxiago igotzearen ondorioz afizionatuen maila hobetu egin da. Hala ere badirudi aurrean dexte pasako direla. Nik ez dut uste gazte batek postua kendu didanik; zuzendariak ikusten du batek nahikoa egin duela eta baja ematen zaio, orduan hartzen dira gazteak eta ez alderantziz.

## Lehena eta oraina

27 urte ditu, ezkondua dago eta seme baten aita da. 6urte egin ditu txirrindularitza profesionalean, denak ere ONCE taldean. Aurretik 3 urte egin zituen afizionatuetan, eta orduan 2 Mundialetan, Seuleko Olinpiadan eta Mediterraneoko jokoetan hartu zuen parte. Profesional bezala berriz Tour bat, 3 Giro eta Munduko Kopako hainbat klasiketan hartu du parte.

Oraindik ere gogoan du parte hartu zuen lehengo lasterketa. "13 urterekin korritu nuen eta erretiratu egin nintzen. Urte horretan 15 karreretatik 3 bakarrik bukatu nintuen, beste dene-tan doblatu egin ninduten". Elektran ibili zeneko garaia ere ez zaizkio ahazten. "Taldea lagun giro bat zegoen, ia jolas bat bezala zen. ONCEn berriz giro profesioanala zegoen, gus-toko lana, baina lana azken finean".

 Mikel Albisu



## “EGAN” TALDE MITIKOAREN ERRAUTSETATIK, “Trabuko”: aurpegi ezagunak, talde berri bat

**B**i hamarkada ondo beteak dituen taldea, hegaldi bat amaitu eta beste beste bat hartzear dago. Herri guztietan gurea egin nahi izan dugun taldeaz, hainbat parranda eta parreen “errudun” litzatekeen “Egan” taldeaz ari gatzazue. Boskotearen hazirik berriena “Trabuko” eta hurrengoak beren arrazoiak.

“Egan” badoa, baina uzten du le-kukorik, hutsunerik ez uztearren. Solasaldi atsegin bat eukitzeko auke-ra ez dugu galdu guk. Ez eta beraiek elkarri txantxak eta txisteak egite-koa. “‘Trabuko’ ‘Egan’eko seitik bost kidek osatuko dugu, Xabier Saldias ezik beste guztiak: Alberto Frantzesena (bateria eta ahotsa), munduko baterijole eta neskazale-rik onena; Imanol Aranburu (teklak), rockero bikaina omen; Peke (kitarra eta ahotsa) eta Gonzalo (bajua eta ahotsa) Pelaez anai idiazabaldar adar-joleak eta Koldo Tarragona (es-kusoinua eta teklak), “Flaco Jimenez euskalduna”.

**G.- Zertan izan dira “Egan”en ibilerak urte guztiotan?**

**E.-** Egan duela 24 urte sortu zen eta harrez gero Xabier eta Alberto soilik geratzen dira. Hurrena Gonzalo eta Peke sartu ziren. Geroago teklatuak aldatu eta Imanol sartu zen; azkenean Koldo bateratu zen. Egan, euskal musikan hutsune bat betetzearren sortu zen batipat, orduan ez zen eus-kal berbena talderik eta guk kanpoko abestiak euskarara itzuli eta festa gi-roak alaitzeari ekin genion.

**G.- Abesti propiorik egiteko ten-taziorik ez?**



Idiazabalgo Pelaez anaiak, Imanol Aranburu, Alberto Frantzesena eta Koldo Tarragona.

**E.-** Bai, jende askok egin digu galde-ra hori; askotan komentatzen ge-nuen, baina beti bere hartan gelditzen zen. Gainera, nahiago dugu urtetik urtera sortzen diren abesti berriak interpretatuz plazako giro horri eutsi, ez dugu beste munduko pretentsio-rik, plaza-giroari garrantzia handia ematen baitiogu.

**G.- E.H.-ko hainbat txoko pasako zeinituzten...**

**E.-** Gehienbat Gipuzkoa eta Biz-kaia-aldea, azken urteotan Bizkaial-dea gehiago, eta txokoak... hoietxek txokoak! Ermitta bat eta zelai bat izanez gero edozein tokitan jo izan dugu, sabai batean ere bai, pentsa be-raz!

**G.- Hemen dator denok esperota-ko galdera: zer dela eta Egan- en desegitea?**

**E.-** Aspalditik datorren kontua da eta tirabira askoren ondorioa. Orain 13 urte Xabier abeslaria Donostiara joan zen bizitzera (inork ez dakigu zerga-

tik), eta handik gutxira Madrilen Egan-en izena bere izenean erregis-tratu zuen inork ezertxo ere jakin ga-be. Hortik aurrera etengabeak izan dira bere trikimailuak, gure kaltera-ko; beti prest egoten zen gutariko edonor taldetik kanpo uzteko eta, guk bere lana errekonozitu arren, ez zen alderantzizkorik, berak enpresa ho-nen jaun eta jabe izan nahi zuen, be-rarengan ohizkoa zen bezala prota-gonismo guztia bereganatuz, gu bere atzean geunden 5 “bulto”en antze-rakoak izanez. Adibide asko ditugu (liburu bat idazteko lain), pentsa; az-ken ia 3 diskak berak beste musiko batzuekin grabatu ditu gurekin ezer-tarako kontatu gabe; egoista, oso egoista izan da gurekin. Azkenean bera zen taldea banantzea nahi ez zuena, baina ezin dugu gehiago jasan eta hori erabaki dugu: gu gara orain berarekin jarraitu nahi ez dugunak.

**G.- Non dira bata eta bestearen arteko mugak?**

**E.-** Egan-en azken saioa



“Txitxarro”n izango da urtezahar gauean eta Trabuko-ren lehen pau-soak Markina eta “Bordatxo”n. Epaitegiko tramiteak bitarteko, 95ko hasieratik Trabuko izenarekin jarraitzea erabaki dugu.

**G.- Nondik dator Trabuko izena eta zertan izango da taldea?**

**E.-** Izen-zerrenda luze batetik aukeratu genuen. Lehenik Goizuetako Trabuko zen, baina izen gogorrek gustoko ditugunez Trabukorekin soilik geratzea erabaki dugu. Trabukoren saioak orain artean egindako haritik jarraituko dute, betiko plaza-giroa mantenduz, entzuleak gogoko

## “Egan desagiteko arrazoa: Saldiasekiko tirabirak”

izango dituen abestiekin, hobekuntzaren bat medio; ahotsak ez gaitu kezkatzen, azkenaldian sarri kantatzen baitugu. Orain arteko moduan Azpeitian entsaiatzen jarraituko dugu. Ez dugu nabarmenduko aldaketarik, zeren bada dexente denbora Xabier entsaiotara azaltzen ez dela. Orain jotzera askoz gustorago joa-

teko segurtasuna dugu. Ez da ilusio falta nabarmenik izango, esperientzia berriarekin hasteko irrikaz gaudede. Udaberriko denek izango dute Trabuko-ren berri, diska edo dena delakorik.

*Elkarriketa ederra bukatuta txantxetarako unerik ere izan dugu, “putre zaharraren seme berriak” gisa azp titulatu digu Trabuko talde berria Gonzalok. Urte mordoxka batetarako ziurtaturik ditugu. Kontaktatu telefonoa: 812581 (Aberto, Azpeitia).*

 Artza

## Fotozaharra



## Beasaingo Alkartasuna Lizeoko ikasleak (83-84)

1969ko kideko goierritar ikasleen argazkia dugu hau, 83-84 kurtsoan aterea, BBBko 1. an zebiltzenezan.


**Zutik:** Xabier Epaizabal, Xabier Cortes, Nekane Bolinaga, Juan Karlos Carnicer, Amaia Barriola, Julene Aierza, Edurne Barrio, Mari Karmen Francisco, Edurne Andueza, Elixabet Cuellar, Mari Jose Barandiaran, Olatz Bonastre, Montse Auzmendi eta Iruñe Etxeberria.

**Makurtuta:** Andoni Etxeberria, Ugutz Agirre, Xabier Aranburu, Juan Manuel Arroniz, Pakea Garmendia, Argider Agirre, Karmele Aiarza, Maitane Arrizabalaga, Jaione Donazar, Amaia Aranburu, Edurne Arrese eta Nekane Arratibel.

**Eserita:** Xabier Egialde, Andoni Auzmendi, Anartz Eztala eta Jon Mikel Garcia.



# ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



## EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna. Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa. Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak!

MULTILENS botatzeko lenteak:  
Erosotasuna ez baita botatzekoa.



**MULTIOPTICAS**

Beti Zuri Begira

*J. Larranaga*

**MULTIOPTICAS**

Ibargaray, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Baradian Enparantza, s/n - ORDIZIA

**MULTIOPTICAS EIBAR**

Bidebarrieta, 2 - EIBAR



**GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO  
BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE**

IZEN-ABIZENAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA .....

KONTU KORRONTE ZENB. ....

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

## Eman eta zabal zazu

**GOIERRITARRAK**  
KULTUR ELKARTEA da eskuetan izaten duzun GOIERRITARRA aldizkariaren editorea, jakingo duzunez. Kultur Elkarte hau bultzatzeko (eta bidebatez debalde jasotzen duzun hamabosterokoa sendotzeko) kanpaina bati ekin diogu, Goierriko kultur ondarea denon artean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurrez ikusirik: Goierriko herrien gehigarri bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin bazatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

**Oharrak:** honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazkideek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...